

Agiri honek  
**PRO LASAITASUNA SORTA ASEGURUAK**  
kanpainaren baldintzak jaso eta zehazten ditu.

---

Kanpainaren helburua da Saltoki/Negozio, Bizitza, Eguneko Baja eta Osasun Aseguruen poliza berriak kontratatzea. Poliza horiek, konpainiaren oinarrizko arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete behar dituzte.

### 1. Kanpainaren datak:

Sustapena 2019ko apirilaren 1ean hasi eta 2019ko ekainaren 30ean amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2019ko apirilaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean kontratatu behar da poliza (efektu-datak, berriz, 2019ko abenduaren 31ra arteko muga izango du Saltoki/Negozio Aseguruetarako, irailaren 30ekoa Bizitza eta Osasun Aseguruetarako eta uztailaren 30ekoa Eguneko Baja Aseguruetarako).

### 2. Eskaintza:

Saltoki/Negozio, Bizitza, Eguneko Baja edo Osasun Asegurua kanpainan zehar kontratatzeagatik, bezeroak 50 € jasoko ditu Saltokiko/Negozioko polizetan, 50 € Bizitzako polizetan, 50 € Eguneko Bajako polizetan eta 50 € Osasuneko polizetan, 3. eta 4. ataletako kontratazio-arauak (poliza berrienak, ordenari erreparatu gabe) betetzen baditu (200 €-koa da itzultzeko gehienezko kopurua).

### 3. Baldintza orokorrak:

- Eskaintzak aseguru-poliza berrietarako soilik balio du, betiere 2019ko apirilaren 1etik ekainaren 30ra bitartean kontratatzen badira.
- Kontratutako poliza bakoitza urtean edo sei hilean behin ordaindu behar da eta ordainketak LABORAL Kutxan egon behar du helbideratuta, Eguneko Baja eta Osasun Aseguruetan izan ezik, horietan hilean behin ere ordaindu ahal izango da eta.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuekin batera erabili, TOP/KIDE bezeroek izan ezik.
- Gehienez 500 itzulketa (bezeroei zuzendutako ordainketa) egingo dira Saltokiaren eta Negoziaren adarretan.
- Eguneko Bajaren eta Osasunaren adarretan ez dago eragiketa-mugarik.
- Sustapenaz baliatzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Itzulketarako eskubidea ematen duen polizaren ordainagiriaren kobrantzaren ondorengo 90 egunen aurretik egingo dira ordainketak.
- Poliza bakoitzaren helbideratze-kontuan dirua itzuliz gauzatuko da oparia.

#### 4. Produktu bakoitzaren baldintzak

##### a. Saltokia eta Negozioa:

- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Aseguratua errentaria edo jardueraren jabea eta ustiatzailea bada, beharrezkoa izango da edukitzailearen kapitalean gomendatutako zenbatekoa edo handiagoa kontratatzea (lehen arriskuko edukitzailearen modalitatean izan ezik). Ez dira sartzen lokal hutsak, trastelekuak eta garajeak.

##### b. Bizitza:

- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Modalitateak: Bizitza+, Bizitza Emakumea eta Bizitza Optimoa.
- Gutxieneko prima: 200 €.

##### c. Eguneko Baja:

- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- 300 €-ko edo gehiagoko primetarako.

##### d. - Osasuna:

- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Mas Salud PRO modalitateak: Profesionalak, Profesionalak Plus, Profesionalak Optimoa.
- 450 €-ko edo gehiagoko primetarako.

#### Sustatzailea:

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetakoko operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Arriskuaren aseguratzaileak: Seguros Lagun Aro SA, Seguros Lagun Aro Vida SA, La Previsión Mallorquina de Seguros SA eta Sanitas SA de Seguros.

#### Aplikazio-eremua:

Caja Laboral Popularren, Seguros Lagun Aroren banka-aseguruetakoko operadore lotetsiaren, bankuko banaketa-sarearen bidez egiten diren kontratazioetan ezarriko da kanpaina. Caja Laboral Popular bitartekarien administrazio-erregistro berezian erregistratuta dago, C572F20022109 zenbakiarekin.